



Irene Mota - Idoia Aragon  
Aixerrota BHI, 14-15

## Garazi Kamio

Garazi Kamio Anduaga (Andoain, Gipuzkoa, 1979ko irailaren 21a) euskal idazlea da. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziaduna da, zenbait hedabidetan lan egina, eta irakasletzan diplomaduna.

Egun, Andoaingo Ikastolako irakaslea da.

2011 urteko Igartza saria irabazi zuen, *Beste norbaiten zapatak* liburuarekin (berak idatzitako lehen liburua)

2013an XIII. Augustin Zubikarai saria eskuratu zuen, "Orube abandonatuak"

proiektuari esker. 2014an, *Orube abandonatuak* liburua argitaratu zuen.



## Sarrera

*Beste norbaiten zapatak* obra 2011n argitaratu zen. Zortzi istorio txikietan banatuta dago, beraien artean zerikusirik ez dutenak. Istorio labur horiek pertsonaiak biluzteko eta euren biluztasunean geure burua aurkitzeko aukera ematen digute. Pertsonen egia adierazten da, perfektioetik urruti eta errealitateetik hurbil.

Pertsonaiak era askotakoak dira sexuz, adinez, bizibidez eta kezkaz; horregatik, tratatzen diren gaiak askotarikoak dira.

# **Beste norbaiten zapatak**

## **”Argazkiak”**

### **Kokapena**

Gaur egun gaietan onarrituta dagoen istorioa da; Julen da pertsonaia nagusia eta bere lankide baten amaren heriotzaren inguruan kontaktzen da istorioa. Izenburua, hamar urtez behin hilkutxan atera nahi dituen argazkiengatik da.

### **Gaia**

Gazte bat hil ondoren nola apaindua izango den kezka

### **Argumentua**

Julen mutil bakartia da, jendearekin harremanetan egotea gorrotu duena. Bere lankide baten ama belatokian ikusteak buruhauste handiak ematen dizkio.

### **Istoria**

Julen errepideetako radarren mantenimenduan egiten du lan Manuel izeneko mutil batekin. Manuelen ama hil berri da eta Julenek beilatokira joan behar du gorroto duen gauza bat izan arren. Manuelek Juleni bere familia aurkeztu nahi dio, baina Julenek ez du nahi, pertsona ezezagunekin harremanak izatea ez zaiolako asko gustatzen.

Bestalde, Juleni, Manuelen ama ikustean, makilatuegia dagoela iruditzen zaio.

Gau horretan, aspalditik gordetako hildakoen irudiak ekartzen ditu gogora, eta ezin izaten du lorik egin.

Hurrengo egunean, dotore jarri eta ehorztetxera joaten da; gorpuak txukuntzen dituenarekin hitz egitera. Bertan, hilkutxaren barruan argazki bat ateratzeko eskatzen dio gizonari. Julenek ez du nahi Manuelen ama bezalako aurpegi artifizialik eta argazki hori hamar urtez behin ateratzea erabakitzen du; gerora bere amari gutunazal batean utziko diona.

### **Pertsonaiak**

Julen: Pertsona bakartia da, beilatokiak eta pertsonekin harremanetan egotea gorroto du. Ez du sare sozialetan lagun askorik. Kanean ere, ez du harreman handirik izandako lagunekin.

Hildakoan gehiegi makillatuta izateko beldur da. Kontakizuneko pertsonaia nagusia da.

### **Egituraketa**

Kontakizun lineala da; egun gutxitan gertatzen dena kontaktzen da. Liburuak dituen zortzi istorioetatik lehenengoa da.

## **Baliabideak**

Narratzailea orojakilea da; gertatzen den guztia daki narratzaile honek, pertsonaien sentimenduak, gertaeren arrazoiak, gerora ere zer gertatuko den... eta iraganean kontatzen du istorioa. Ez du deskribapenik egiten.

Facebook sare soziala aipatzen da, beraz, gaur egungo istorioa dela ondoriozta daiteke.

## **2 "Nessun dorma"**

### **Kokapena**

Gaur egunean oinarrituta dagoen istorioa da. Pertsonaiak bi agure dira eta lurrean botata daude altxa ezinik. Izenburua istorioan aipatzen den opera batengatik da.

### **Gaia**

Agureak laguntza barik bizitzeak ekarri ahal dituen arazoak.

### **Argumentua**

Adineko senar-emazteak lurrean botata daude ; gizona, alzheimerak jota ez du ezer ulertzen eta emaztea sufritzen ikusten du, baina ez dauka ezer egiterik.

### **Istorioa**

Juan eta Maria, adineko senar-emazteak, lurrera erori dira eta ezin dira altxatu. Juanek alzheimerra dauka eta ez du ezer ulertzen. Bera lotan dagoen bitartean, Maria kezkatuta dago zer egin ez dakiela.

Lurrean etzanda daudela, aspaldiko kontuei buruz mintzatzen ari dira; Juanen ustez, Mariaren lana bera zaintzea da.

Maria damututa dago inori laguntza eskatu ez izanagatik aitortu behar delako bere adineko andre bat, Juan bezalako gizonkote bat altxatzeko gai ez dela izango.

Juanek txiza egiten du lurrean eta Maria etsita dago, Juanekin batera hilko delakoan dago.

Juan ez da konturatzen lurrean daudela eta Mariari gose dela esaten dio, azkenean, berriro lotan geratzen da.

### **Pertsonaiak**

Maria. Adineko emakumea da. Bere senarra zaintzen eman du bizitza osoa eta horretaz damutzen dela ematen du.

Juan. Alzheimerra duen gizona da eta ezjakintasunean bizi da.

## **Egituraketa**

Egitura lineala du; ordu gutxitan gertatzen den kontakizuna da. Liburuak duen zortzi istorioetatik bigarrena da.

## **Baliabideak**

Narratzailea orojakilea da; gertatzen den guztia daki narratzaile honek, pertsonaien sentimenduak, gertaeren arrazoiak, gerora ere zer gertatuko den... Istorioa momentuan gertatzen ari balitz bezala kontatzen du. Ez du deskribapenik egiten.

Bere senarrak noiztik duen Alzheimerra esateko, modu berezi honetan esaten du:

*"Juanek duela bi urte jaso zuen Alemaniako lagun horren bisita; Alzheimerrak ezustean egin zuen bizilekua haren buruan."* (32. or.)

## **3 "Panenka"**

### **Kokapena**

Gaur egunean oinarrituta dagoen istorioa da. Ama bat bere alaba hezitzean dituen oztopoak eta arazoak azaltzen dira.

### **Gaia**

Belaunaldi berrien heziketa eta gurasoen kezka prozesu horretan

### **Argumentua**

Aiton-amonek alabari egiten utzi ez ziotena, orain ilobari uzten diote. Hori, ama haserretzen du.

### **Istorioa**

Aiton-amonak bere ilobaren, Iratiren, heziketan oso bigunak dira.

Nahi duena egiten usten uzten diote, eta hori traba bat baino ez da amarentzat.

Bera txikia zenean oso zorrotzak ziren berarekin, eta orain, berriz, belaunaldi berriari askatasun osoa ematen diote. Horrek Iratiren ama haserretzen du.

Bestalde, Irati futbolzale amorratua da aitona bezala. Iratiren amaren ustez, bere adineko neskak bezala, panpinekin jolastu beharko zuen eta ez futboleant egun osoan. Amak zaletasun zatar hori kendu nahi dio burutik Iratiri eta horretarako txandala lixibaz zikindu nahi du. Martin, bere senarra, horretaz konturatzean futbola beste zaletasunena dela esaten dio eta ezin dela nola edo hala kendu

### **Pertsonaiak**

Ama: oso kezkatuta dago bere alabaren heziketarekin eta futbolaren zaletasunarekin amaitu nahi du. Narratzaileak irakurlea ama balitz bezala kontatzen du istorioa.

## **Egituraketa**

Egitura lineala du. Liburuaren zortzi istorioetatik hirugarrena da.

## **Baliabideak**

Narratzailea orojakilea da; gertatzen den guztia daki narratzaile honek, pertsonaien sentimenduak, gertaeren arrazoiak, gerora ere zer gertatuko den...

Narratzaileak, irakurlea ama balitz bezala kontaktzen du istorioa, horrek kontakizunaren parte egiten du irakurlea. (Adibidez; "*Antzezlan honetan amaren papera eman zizuten, baina zuk gidoia jarraitzen duzun bitartean, amonak guztiz kontrakoa esaten dio umeari.*" (46. or.)

## **4 "Matematika"**

### **Kokapena**

Gaur egunean oinarritutako istorioa da. Nerea eta Xabier, bikote gaztea, dira istorioko pertsonai nagusiak. Maslowen piramideak garrantzi handia du kontakizun honetan. Euskal Herrian gertatzen da, Durangoko Azokaren aipamena egiten baita .Bikote batek giza –harremanak matematika-ekuazioen ikusten ditu; eta hori da izenburuaren arazoia.

### **Gaia**

Benetako maitasuna ez duten bikoteek elkarrekin jarraitzeak eragin ditzakeen zoritxarrak

### **Argumentua**

Nerea eta Xabier, bikote gaztea, zoriontsuak direla dirudi, baina itxura baino ez da.

### **Istoria**

Xabier Maslowen piramidearekin oso interesatuta dago; horren arabera, gizabanakoak bere beharrianak asetu behar ditu. Behin azpiko maila asetzen duenean, maila bat igoko da eta bertako beharrak asetzera jo.

Xabierrek bere autoerrealizazioa Audi A6 baten bolantean irudikatzen du, Nereak berriz ez du kontu hori oso serio hartzen.

Durangoko Azokara joateko geratzen dira bi lagunekin. Bertan ,beraien aurrean, bikote zoriontsuaren itxura egiten dute. Nereari bere abeslari gogokoenak disko bat sinatzen dio.

Etxera itzultzeko bidean, Nereak Xabierri aitortzen dio benetan ez duela maite; sexua beharra duenean asetzen diola esaten dio. Xabierrek hori ezustean harrapatzen du.

Gasolindegian batean hitz egiteko gelditzea erabakitzen dute, eta Nerea komunetik ateratzean, Xabierrek azeleragailua zapaldu eta Nerea aurretik eramaten du.

Bertan lortzen du Maslowen piramideko mailarik gorena: autoerrealizazioa: autoz egindako ekintzak.

### **Pertsonaiak**

Nerea: Bere bikotea ez du benetan maite baina erosotasunagatik berarekin jarraitzen du.

Xabier: autoerrealizazioarekin obsesionatuta dago eta azkenean bere neskalaguna erasotzea lortzen du.

### **Egituraketa**

Egitura lineala du. Liburuaren zortzi istorioetatik laugarrena da.

### **Baliabideak**

Narratzailea orojakilea da; gertatzen den guztia daki narratzaile honek, pertsonaien sentimenduak, gertaeren arrazoiak, gerora ere zer gertatuko den...

Durangoko Azokan gertatzen da istorioaren zati bat eta euskal abeslari baten aipamena egiten da; Mikel Urdangarin.

## **5 "Long journey home"**

### **Kokapena**

Maiatzak 17 eta astearte da, autobus handi batean daude Madrilerako bidean.

Istorioan zehar zenbait toki izendatzen ditu: *Miranda de Ebro*, *Pancorbo*, N-I karretera, N-laren bazterrean zegoen jatetxea *Boceguilla* izena duena, *Tres Cantos* eta M-609 errepidea.

Gaur egunean gertatutako istorioa da eta edoizen pertsonari gertatu ahal zaion egoera da.

Izenburuak esaten duen moduan etxerako bidean dauden lagunak dira.

### **Gaia**

Autobusean bidaia luze bat egin behar duten lagun pare bat.

### **Argumentua**

Maiden eta Saioak autobus handi batean daude Madrilerako bidean. Bidaian zehar gertatutako ekintzak azaltzen dira istorioan.

### **Istorioa**

Maiden eta Saioa Donostiatik Madrilerako bidean daude; lagun bat kartzelara bizitatzera doaz. Bidaia osoa igarotzen dute hizketan beraien gauzez.

Bidaiaren erdian daudela, autobusa gelditu egiten da taberna batean, eta autobusetik jende guztia jaisten da. Mainer eta Saioa tabernara sartzen direnean, ohartu egiten dira lekuz kanpo daudela; haiek Euskal Herrikoak direlako eta giro hori ez zaielako batere gustatzen.

### **Pertsonaiak**

Mainer: Saioaren laguna da.

Saioa: wikipedia begiratzea gustuko du, liburuak irakurtzea baino erosoagoa dela esaten du.

### **Egituraketa**

Istoria linealki kontatuta dago. Istorioan zehar momentuan gertatzen diren gauzak kontzaten dira ; baina flash-back batzuk daude Mainer txikitan Donostiara egindako bidaiei buruz hitz egiten duenean.

Istoriaan narratzaileak Mainerren eta Saioaren bidaia kontatzen du. Bestalde, bi lagunen arteko elkarrizketak daude.

### **Baliabideak**

*Narratzaileari dagokionez:*

Barruko ikuspuntua duen narratzailea erabiltzen da; bi pertsonaien artean gertaerak, arrazoiak eta iritziak kontatzen dizkigute. Hori, barne elkarrizketaren bitartez egiten dute, gauzak gertatzen diren bitartean hausnarketak egiten dituzte-eta.

*Pertsonaiei dagokienez:*

Pertsonaiek hizkera herrikoia erabiltzen dute haien artean eta horrek pertsonaiak elkar ezagutzen dutela adierazten du.

## **6 "325"**

### **Kokapena**

Istoria hau ospital batean gertatzen da, bertako korridoretan eta 325 zenbakia duen gela batean.

Gaur egunean gertatutako istorioa da eta edoizen edozein pertsonari gertatu ahal zaion egoera da.

Anaren alaba, Aiora, gaixo dago eta zehazki zer gertatzen zaion jakin arte ezin dira 325ko gelatik joan.

Istoriaaren izenburua 325 da istorio osoa 325 gelan gertatzen delako.

### **Gaia**

Alaba gaixoa ospitalera eraman behar izan duen ama eta bertan igarotako urduriak



## **Argumentua**

Anaren alaba, Aiora, gaixorik dago eta medikuek ez dakitenez zer gertatzen zaion, 325eko logelan geratu behar da. Bertan Abigail eta bere ama, Gladys ezagutzen dituzte.

## **Istorioa**

Ana ospitaleko korridorean dago, bere alaba itxaroten duen bitartean. Korridorean dagoela, igogailuaren ondoan ohatila bat ikusten du. Haren gainean, luze-luze etzanda, izaeraz estalitako gorpu bat dago.

Zelafore bati entzuten dio norbaitek ahaztuta utzi duela, eta Ana txunditurik geratzen da hitz horiekin. Hori entzun ostean, espero duen bakarra alaba horrela ez amaitzea da. Zelaforearekin igogailura sartzen da eta hirugarren solairura iristen direnean, 325eko gela seinalatzen dio. Gelaren barruan, Abigail izeneko neska bat eta bere ama Gladys daude. Gladys Hego Amerikako neska da, oso berritsua eta jatorra. Hasieran Ana deseroso sentitzen da gelan, bera neska ixila delako; Gladys aldiz beti badauka zertaz hitz egin.

## **Egituraketa:**

Istorioa linealki kontatuta dago, gauzak bata bestearen ondoren kontatuta daude.

## **Baliabideak**

Narrazio bat da, gauzak segituan gertatzen direlako.

Narratzaile orojakile batez kontatuta dago, hau da, gertatzen den guztia daki narratzaile honek, pertsonaien sentimenduak eta gertaeren arrazoiak.

Gertakizunak aparte pertsonaien arteko elkarrizketak daude eta horrek hurbiltasuna eragiten dio irakurleari.

## **7 “Beste norbaiten zapatak”**

### **Kokapena**

Istorioa bi lekutan gertatzen da, Urkiolan, Edorta bizi den tokian eta Gazteizen, Fausto bizi den tokian.

Izenburua Ernestok Faustori idatzitako eskutitzean agertzen delako da: “Ikusi diat beste norbaiten zapatetan sartzeko dudan abilezia aparta”.

### **Gaia**

Bizilagunari mandatu bitxi bat eskatzen dion agurea

## **Argumentua**

Edortak bere bizitza osoa igaro du lan egiten, baina orain langabezian dago. Duela sei hilabete bere bizilagunak emandako eskutitzaz oroitu da, ezagun bati emateko eskatu ziona.

## **Istoria**

Edortak, bere bizilagunak duela 30 urte emandako eskutitza eman behar dio Faustori eta horretarako Gazteizera joan behar da.

Fausto, eguneroko gauzetan laguntzen dion neska batekin bizi da. Edorta, eskutitza irakurtzean, bere bizilaguna oker batengatik kartzelan sartu zutela ohartzen da. Fausto eta Ernesto, karlistak ziren baina geroago Fausto komunista egin zenean, Ernesto salatu zuen. Gutunean, Ernesto Fausto barkatzen duela esan du.

Irakurtzen amaitutakoan, neskak gutuna apurtzen du eta esaten dio ez diola inori kontatuko. Azkenean Edorta Faustoren etxetik irtetzen da ezer ulertu gabe.

## **Pertsonaiak**

Edorta: betidanik lanez lepo egon den gizona da, baina orain langabezian dago eta zerrenda bat dauka betetzeko.

Fausto: edadeko gizona da eta bere bizitza osoan gezurretan murgilduta bizi izan da.

## **Egituraketa**

Istoria linealki kontatuta dago, baina flash-back batzuk egiten ditu Edortak, bizilagunak gutuna eman zion egunaz oroitzen denean.

## **Baliabideak**

*Narratzaileari dagokionez:*

Barruko ikuspuntua duen narratzailea erabiltzen da; Edortari gertatu zaizkion gauzak eta sentitzen duena daki. Narratzaileak Edorta egoera horretara nola heldu den azaltzen du.

*Pertsonaiei dagokienez:*

Haien arteko elkarrizketak daude, baina tonu eta hizkera formal batean hitz egiten dute ez dutelako elkar ezagutzen.

## 8 "Gerizpeko panpinak"

### **Kokapena**

Gaur egun Madril en gertatutako istorioa da. Aita eta alaba joaten dira oporretan eta bertan aspaldiko pertsona batekin egiten dute topo.

### **Gaia**

30 urte lehenagoko, ikasle garaiko pasadizoak aztorarazten dituen gurasoaren istorioa da

### **Argumentua**

Gizon bat, bere alabarekin, Izaro izenekoa, oporretan joaten da Madrilera. Bertan gizonak, duela hogeita hamar urte ikusi ez duen neska batekin topo egiten du; baina ez berak espero duen moduan.

### **Istoria**

Gizonak, Blanca kutxazain batean aurkitu du lo egiten. Blanca(k) bere oroitzapenetako mamu bat da eta ez dio pentsamendu onik ekartzen burura.

Madrilera ikastera joan zenean ezagutu zuen Blanca. Neskarik politena zen berarentzat, baina egun batean dena aldatu egin zen; Blancak dirua nola irabazten zuen kontatu zionean. Neskak, *Casa de Campo* izeneko leku batean egiten zuen lan; bertan, sexua izaten zuen diruaren truke.

Orain, 30 urte pasa ondoren, ohartu egin da nolako gauzak egin dituen iraganean eta bere burutik kendu nahi ditu.

### **Pertsonaiak**

Gizona: pixka bat arraroa da, ezin du edozein ohetan lorik egin

Blanca: betidanik neska polita eta liluragarria izan da. Orain kalean bizi da; hortaz, ile nahasia eta zikina du. Arropa zikinak daramatza soinean eta burutik jota dago.

### **Egituraketa**

Istoria gizonak kontaktzen du. Hasieran era lineal batean kontaktuta dago baina gero duela 30 urte gertatu zitzaiona kontaktzen du; amaieran linealki amaitzen da.

Gizona iraganeko pasarteak kontaktzen ari denean lehen aldian kontaktzen du eta pertsonaien arteko elkarrizketak azaltzen dira.

### **Baliabideak**

Narratzailea Edorta da, berak kontzatzen du istorio guztia bere ikuspuntutik. Beraz, bere oroitzapenak eta nola bizi izan zituen urte horiek kontaktzen ditu berak. Hizkera normal bat erabiltzen du, euskaldunek egunero hitz egiten duten moduan.

## Iritzia

Liburua zortzi istorioz osaturik egoteak alde onak eta txarrak ditu.

Alde batetik, zortzi istorio desberdinak izateak, irakurketa errazten du. Istorio baten gaia gustukoa izan ez arren, barietatea dagoenez, gustura irakurriko den gairen bat aurki daiteke. Gainera, kontakizunetan, gaur egun edonori gertatu ahal zaizkion egoerak kontatzen dira eta horrek irakurlearengana hurbiltzen laguntzen du.

Bestalde, zortzi istorioak desberdinak izatea korapilatsua izan daiteke. Bat amaitzean, horrekin zerikusirik ez duen beste bat hasteak burua nahasi ahal duelako. Horretaz aparte, kontakizunak oso laburrak direnez, askotan, gehiago irakurtzeko gogoia eragin dezake.

Liburuaren berezitasunetako bat, "Panenka" istorioan aurki daiteke. Narratzailea, irakurleari zuzentzen zaio, bera pertsonaia nagusia izango balitz bezala. Hasieran, ezustean harrapatzen du irakurlea, baina geroago istorioan barneratzen eta pertsonaiaren sentimenduak hobeto ezagutzen laguntzen du.

Euskal Herriko herrialdeak, abeslariak eta gertaerak aipatzen dira; Durangoko azoka adibidez. Irakurlea noizbait leku haietan egona bada, ingurunea eta egoera imajinatzea errazagoa izango du. Horrek liburua berezia izaten laguntzen du.

Gustu guztietarako liburua da, baita edoizein adinetarako. Lantzen diren gaiak askotarikoak dira. Kontakizun batzuek hausnarketa egitea eragiten dute, gai sakonak tratatzen baitituzte.

## Webgrafia

[http://eu.wikipedia.org/wiki/Garazi\\_Kamio](http://eu.wikipedia.org/wiki/Garazi_Kamio)

<http://ikasgela.santurtzieus.com/mod/lesson/view.php?>

[http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt\\_el/index.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp)

<http://ikasgela.santurtzieus.com/mod/lesson/view.php?id=17186&pageid=2067&lang=es>

<http://zuzeu.eus/2012/03/01/garazi-kamiok-beste-norbaiten-zapatak-liburua-aurkeztu-du/>

<http://www.diariovasco.com/v/20120302/cultura/beste-norbaiten-zapatak-ipuin-20120302.html>

<https://sites.google.com/site/euskaljakintza/narratzailea>

<http://www.hernaniliburutegia.net/hernani/de/beste-norbaiten-zapatak-garazi-kamio-2982.asp?cod=2982&nombre=2982>